AZKOITIKO GIZON ETA EMAKUMEEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

2018-2021

2018KO OTSAILA

AZKOITIA Udala

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

DAITEKE
consultoría social
gizarte aholkularitza

AURKIBIDEA

		Orria
1.	SARRERA	2
2.	LEGE OINARRIAK	3
3.	LAN PROZEDURA	8
4.	AZKOITIKO I. PLANAREN EBALUAZIOA	12
5.	AZKOITIKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA	18
6.	AZKOITIKO II. BERDINTASUN PLANAREN ARDATZA, HELBURUAK ETA EKINTZAK	19
7.	AZKOITIKO II. BERDINTASUN PLANAREN KUDEAKETA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIO EREDUA	49
8.	ERANSKINAK	52

1- SARRERA

Azken urteotan, hainbat aurrera-pausu eman dira lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal ezberdinetan ere aurrera-pausu handiak ematen ari dira, eta horretan da Azkoitiako udala ere.

Azkoitiko I. berdintasun planaren indarraldia agortuta, eta 2016. urtean burutu zen ebaluazio prozesuaren ondorioz sortutako txostenean oinarriturik, II. Berdintasun Plan hau eratu da, Azkoitiko udalean bertan, eta udaletik herrira burutzen diren ekintzetan berdintasun ikuspegia txertatzen laguntzeko tresna gisa. Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak ezarri dira, eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak zehaztu dira.

Legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den Azkoitiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planaren helburua.

Plan hau udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan nahi du, eta maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.

Era berean, herriko eragile ezberdinen inplikazioa ere ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan, eta exekuzioan ere bereziki garrantzitsua izango da herriko elkarte, eragile eta norbanako guztien parte hartzea.

2- LEGE-OINARRIAK

Aurrean esan bezala, Azkoitiko II berdintasun planaren oinarri dira azken urteotan nazioarte mailan eta estatu, autonomi erkidego edo udal mailan onartutako testu legalak.

Honakoak lirateke horietan garrantzitsuenak kontsideratu direnak:

→ Apirilaren 2ko 7/1985 Legea. Tokiko erregimenaren oinarria arautzen duena. 2003-12-21 ean eguneratua.

→ Otsailaren 18ko 4/2005 Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea. (EAE)

→ Martxoaren 22ko 4/2007 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen berdintasun eraginkorrerako Legea. (Espainiar estatua)

→ Tokiko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Europako Eskutitza.

→ 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako. (Gipuzkoako foru aldundia)

→ EAEko Emakume eta Gizonen berdintasunerako VI. Plana.

Azpimarratu beharrekoak dira, Azkoitiko II. Plana egiterakoan oinarri izandako bi erreferentzia aipagarrienak: EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana.

✓ EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea

EAEko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Autonomi Erkidego mailan berdintasun politikak garatzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait irizpide ezartzen ditu. Horretarako, berdintasun politiketan oinarrizko diren zenbait kontzeptu definitzeaz gain, legearen 7. artikuluan, tokiko administrazioen funtzioak zehazten ditu:

a) Genero ikuspuntua integratzeko, prozesu, programa eta estrukturen egokitzapena eta eginkizuna du.

b) Ekintza positiboen aktuazio neurriak.

c) Foru Aldundiei dagokien programazioa eta Gobernuaren planifikazio orokorraren testuinguruko planifikazioa.

d) Emakume eta gizonen ezberdintasunen gaineko ezagutza erreal bat izateko, beharrezko diren estatistika eguneratuen egokitze eta mantentzeak burutzea. Eta berdintasuna bultzatzeko beharrezko neurriak martxan jartzea.

e) Udal herri mailan emakume eta gizonen egoerari buruzko ikerketa eta azterketak garatzea.

f) Emakume eta gizonen egoera ezberdinari buruzko sentsibilizazio kanpainak martxan jartzea. Eta berdintasuna lortzeko martxan jarri beharreko neurriei buruzko sentsibilizazio kanpainak garatzea.

g) Herriko araudiari jarraipena egin eta emakume eta gizonen berdintasun printzipioa aplikatzeko adostasuna aurrera eramatea.

h) Herriarentzako informazio eta orientazioa ematea, bereziki emakumeei, berdintasunen inguruko errekurtso eta programei buruz. Eta bazterketa anitza pairatzen duten emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programei buruzko informazioa zabaltzea.

i) Emakumeen oinarrizko eskubide sozialak bermatzeko zerbitzu eta programen aurkezpenak egin eta berauek aurrera eramatea.

j) Bizi pertsonala, laborala eta familiarra bateragarriak izateko behar diren establezimendu, errekurtso eta zerbitzu soziokomunitarioak martxan jartzea. (udal mailako izaera du).

k) Entitate publiko nahiz pribatuak, parte hartze bideak, erlazioen ezarpena, bakoitzaren funtzio eta helburuen arabera elkar lana egitea, Udal Herri mailan, emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzeko.

l) Sexu arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bazterketa guztiak atzematea eta berauek deusezteko neurriak jartzea.

m) Beste edozein funtzio, beti ere udalaren konpetentzien barruan sartzen bada.

Horrez gain, lege beraren 10. Artikuluak tokiko administrazioek berdintasun arloan dituzten eginkizunak zehazten dira:

a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.

b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.

c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.

d) Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendean dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.

e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio jarduerak egitea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.

f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria- egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota eta prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin, solaskidetza izatea.

l) Lege honetan jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun burutzea.

- ✓ **EAEko gizon eta emakumeen VI. Berdintasun Plana**

Gaur egun Berdintasun Plan bat egiteko kontuan izan beharreko beste erreferentzia nagusia EAEko emakume eta gizonen VI. Berdintasun Plana da.

Plan hau, 3 ardatzen inguruan egituratzen da. Ardatz hauek, berdintasun politikak lantzeko lehentasunak ezartzen dituzte: Ahalduntzea eta emakumeen parte hartze soziopolitikoa, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria. VI. Plan honetan, mainstreaming-a ardatz bezala kontsideratzetik estrategia gisa ulertzera pasatzen da. Aldaketa nabarmen honek, berdintasun politiken norabidean ikuspegi aldaketa bat erakusten digu, non zehar-lerrokotasunak zentraltasuna irabazten duen, eta ezinbesteko kontzeptutzat jotzen den berdintasun politikak garatzerako orduan. Ikuspuntu hori da hain zuzen Azkoitiko II. Plan honen oinarri nagusia.

ZER DA ZER?

Mainstreaming-a: Genero ikuspegia departamendu eta ekintza guztietan zeharkakoa izatean datza. Departamendu guztiek berdintasuna beraien

helburuetako bat bezala onartu eta hartu behar dute, eta haien eguneroko jardunean zehar-lerroko eta ezinbesteko gai gisa kokatu.

Era berean, genero ikuspegia, herriko eremu eraginkorretan ezartzean datza; eremu sozial, eremu kultural, eremu ekonomiko...

Ahalduntzea: Gizartearen eraketa patriarkalak ezarritako posizioaren kontzientziatik, emakumeek haien egoera hobetzeko urratsak ematen dituzte, eremu pertsonal, kolektibo eta soziopolitikoan. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planak horrela azaltzen du Emakumeen ahalduntze eta balio aldatze ardatza: Pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzeari deritzogu ahalduntzea. Beraz, emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egiterekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna: Bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala bateratzeko neurri multzoa. Norbanakoon denbora hiru eremuok asetzea ahalbidetzea, eta era berean emakume eta gizonen denboren erabilera parekatzeko neurriak ezartzean datza. Hala, espazio publiko eta pribatuaren arteko oreka bilatzen da emakume zein gizonentzat.

Emakumeen aurkako indarkeria: Sexu arrazoiengatik, emakumeen aurka ematen den edozein motatako indarkeria. 4/2005 Legeari jarraiki, emakumeen aurkako indarkeria honela definitzen da: “sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

3- LAN PROZEDURA

Aipatutako helburuak lortzeko, hainbat fasetan egituratutako lan prozedura jarraitu da 6 hilabeteko epean, aurrean aipatutako lege oinarriak kontuan hartuta, eta Emakunderen VI. Berdintasun plana ardatz harturik.

1. fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu

2. fasea: I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren azterketa eta interpretazioa

3. fasea: Berdintasun planaren I. zirriborroa egitea eta kontrastea (talde sustatzaile + herritar + teknikariekin)

4. fasea: II. Zirriborroa egitea eta kontrastatzea (talde sustatzailea+ teknikari+

politikariekin)

5.fasea: II. Zirriborroa Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean

txertatu. Audientzi publikoa

6. fasea: Azkoitiko II. Berdintasun Planaren onarpena

1. <u>Fasea: Talde sustatzailea osatu, lan tresnen diseinua eta planaren egitura zehaztu</u>

■ *Talde sustatzailea* arloko zinegotziak, gizarte zerbitzuetako buruak eta berdintasun arduradunak eta Daitekeko ordezkariek osatu dute. Funtzioak:

- Berdintasun plana egiteko ekintza guztien koordinazioa.
- Arlo ezberdinen parte hartzea finkatzea
- Herriko emakumeen parte hartzea bermatzeko neurriak ezartzea.
- Lehentasunak finkatzea
- Planean finkatutako ekintza eta helburu zehatz guztien garapena.
- Emaitzak gizartera hedatzea.

■ *Elkarte-mugimenduaren eta emakumeen parte-hartzea prozesu osoan zehar sustatzea.*

Plana diseinatzeko-prozesuan, udaleko berdintasun-politiken diseinu eta proposamenetan, eta jarraipen eta balioespen orokorrean egon den bigarren egitura da. Informazioaren eta ekintzen kontrasterako egitura garrantzitsua izan da. Herriko elkarte feministako kideek eta herriko elkarte ezberdinetako ordezkariek parte hartu dute prozesu honetan. Parte-hartzearekin, emakumeentzat, emakumeekin kontatu gabe gauzak antolatzea ekidin nahi da.

2. Fasea: I. Planaren ebaluazioan jasotako informazioaren azteketa eta interpretazioa.

2016 urtean burututako ebaluazioan jasotako informazioa birpasatu eta interpretatzeko fasea izan da honakoa. Fase honetan arlo bakoitzeko helburu nagusiak finkatu dira eta I. zirriborroan txertatu.

3. Fasea Berdintasun planaren I. zirriborroa egitea eta kontrastea (talde sustatzaile+ herritar + teknikariekin)

Aurreko bileretan jasotako informazioa eta ebaluazioa jasotzen duen dokumentua kontuan harturik, Berdintasun Planaren I. zirriborroa egin da. Lehenengo zirriborro hori talde sustatzailearekin kontrastatu da, ondoren teknikari, gizarte eragile eta herritarrekin batera kontrastatu ahal izateko.

Ekintza bakoitzaren arduradun eta aurrekontua zehaztu da bilera hauetan. Helburu eta ekintza bakoitza ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak ere kontrastatu dira une honetan.

4. Fasea: II. Zirriborroa egitea eta kontrastatzea (talde sustatzaile+ teknikari+ politikariekin)

Jasotako proposamenekin eta ezarritako lehentasunekin II. Zirriborroa eratu da. Talde eragilearekin bilera bat burutu da kontrasterako, eta teknikari eta politikariei helbide elektroniko bidez helarazi zaie dokumentua, azken zuzenketak proposatzeko aukera emanez.

5. Fasea: III. Zirriborroa egitea. Emakundera bidali eta hauen iradokizunak Planean txertatu. Audientzi publikoa.

III. zirriborroarekin batera arlo bakoitzaren urterako programazioa ere egin da. III. zirriborroa Talde eragilearekin kontrastatu ondoren, Emakundera bidali da hauen onespena eta iradokizunak jaso ahal izateko. Denbora tarte horretan Berdintasun Plana herritarren eskura egon da edozein ekarpen jaso ahal izateko.

6. Fasea: Azkoitiko II. Berdintasun Planaren onarpena.

Udal plenoan Azkoitiko Emakume eta gizonen arteko II. berdintasun plana onartu beharko da.

Emakundeko iradokizunak kontutan hartu ondoren eta egondako ekarpenak jaso ondoren, behin betiko Planaren aurkezpena egingo da udal sindikatu eta politikariekin eta beste aurkezpen bat udal teknikari eta administrariekin. Ondoren udal plenoan onartu beharko da.

Parte hartzea

Planaren eraketa prozesuan, aurrean azaldu bezala, ezinbestekoa izan da udal teknikarien eta herritarren parte hartzea. Guztira 18 pertsonek parte hartu dute, 13 udaleko arlo ezberdinetako ordezkari gisa, eta 5 gizarte eragile gisa.

TALDEA	AZPI-TALDEA	Hasierako bilera	
		Emakume	gizon
UDALEKO ORDEZKARIAK	Zerbitzu orokorrak	1	1
	Kultura, kirola eta komertzioa		1
	Hezkuntza eta gazteria		1
	Hirigintza	1	3

	Berdintasuna	1	
	Gizarte zerbitzuak	2	1
	Enplegua	1	
GIZARTE ERAGILEAK	Elkarte feminista eta emakumeen elkarteak	1	
	Ikastetxeak	3	1
Parte hartzaileak guztira		9	8

4- AZKOITIKO I. BERDINTASUN PLANAREN EBALUAZIOA

Jarraian aurkezten dugu 2010. urtetik 2015 urtera bitartean Azkoitiko udalean indarrean egon den I. Berdintasun planaren ebaluazio-txostenean jasotako ondorio nagusienak:

1. **Berdintasun planaren beteze maila:**



2. **Betetako eta erdizka betetako ekintzak arloaren arabera:**



3. Ekintzen betetze maila, ardatzaren arabera, ehunekotan adierazita



BALORAZIO KUALITATIBOA

ZERBITZU OROKORRAK	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Plana aurrera eramateko baliabideak martxan jarri dira, eta aurrekontu propioa izatera iritsi da berdintasun arloa. Kontratazio eta diru laguntzetan berdintasun irizpideak txertatzen hasi dira. Oposaketetan berdintasun irizpideak txertatzen hasi dira, bai irizpideetan, bai eta gai zerrendetan ere. Hizkuntzaren erabilera zaintzen da genero ikuspegitik,eta zalantza kasuetan berdintasun teknikari galdetu izan zaio, edo lankideei. Lan ordutegia malgua da eta langilegoak lan baldintzak egokiak direla uste du.	Datuak sexuaren arabera bereizteko urratsak ematea Formazio plan bat garatzea udal mailan berdintasun ikuspegiaren integraziorako Prozesu parte hartzaileen gaineko jarraipen eta sistematizazioa Berdintasun ikuspegia txertatzeko urteko plangintzak burutzea Sexu jazarpen eta jazarpen sexistaren gaineko azterketa burutzea

BERDINTASUN ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Datuak sexuaren arabera bereizten dira Gainerako departamenduekin	Udal mailan formazio plan bat garatzea berdintasun ikuspegitik

koordinazioa eman da eta nolabaiteko erreferentzialtasun bat sortu da. Askotariko sentsibilizazio ekimenak burutu dira, eta finkatu egin dira. Ahalduntze ikastaroak martxan jarri dira eta egonkortu egin dira. Herriko eragile feministek indarra hartu dute, erreferente bihurtu dira herri mailan berdintasun arloan, eta eragileak eta berdintasun arloarekiko harremana estutu da. Indarkeria jasaten duten emakumeei arreta obea eskaintzeko koordinaziorako protokoloa ezarri da.	Bateragarritasun ardatza lantzeko ekimenak garatzea, erantzunkidetasunean sakonduz bereziki. Ahalduntze ikastaroen birplanteamendua: ez dute behar bezala funtzionatzen, eta estrategia aldatu beharra ikusten da. Emakume hartzaileen profila zabaltzea: berdintasun arloa iristen ez den emakume horiengana iristeko ahalegina

GIZARTE ZERBITZUAK ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Sexu aldagaia txertatu da hitzorduak kudeatzeko programan, txostenetan eta antolatzen diren ekimenetan. Berdintasun plan sektoriala burutu da Emakumeenganako indarkeria kasuetan erantzuna emateko koordinazio protokoloa sinatu da 2015 urtean. Hizkuntzaren erabilera zaintzen da Diru laguntzetan eta kontratazioetan berdintasun irizpidea kontuan hartzen da Emakume etorkinekin hizkunza trebakuntza landu da. Zaintzaile ez formalei zuzenduriko zerbitzu espezifikoak garatu dira, eta hauen gaineko jarraipena egiten da.	Identifikatutako formazio beharrei erantzuna emateko bideak bilatu Emakumeen kolektibo ezberdinekin lanketak burutzea: bazterkeria arriskuan dauden emakumeak, askatasun pribazio goeran daudenak, drogomenpekotasuna dutenak, aniztasun funtzionala duten emakumeak… Eta kolektibo horien parte-hartzea sustatzeko ekimenak garatzea. Erantzunkidetasuna sustatzeko ekimenak burutzea, gizarte antolakuntza berri baten promoziora bideratuta.

Bateragarritasun neurriak txertatzen dira gizarte zerbitzuetatik antolatutako ekimenetan.	

KULTURA-LIBURUTEGIA ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Diru laguntzen justifikazioetan sexu aldagaia txertatzen da. Diru laguntza eta kontratazioetan genero irizpidea kontuan hartzen da. Parte hartze gune parekideak Bateragarritasun neurriak kontuan hartzen dira. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako mezuak zabaldu dira. Berdintasun arloarekin koordinazioa eman da.	Datuak sexuaren arabera desberdintzeo bideak aztertu, emakumeen beharrak identifikatu eta eskainitako zerbitzuen harreraren gaineko diagnostiko bat egin ahal izateko Dauden baliabide eta formazio beharrak identifikatu, berdintasun ikuspegia txertatu ahal izateko. Liburutegian berdintasun ikuspegia txertatu, horretarako beharrezko liratekeen baliabideak aztertuta. Bateragarritasun neurriak ekintza guztietara zabaltzeko erak aztertzea. Hizkuntzaren erabileraren gaineko jarraipena burutu.

KIROLA ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Sexu aldagaia txertatu da alta eta bajen fitxetan. Berdintasun arloarekin koordinazioa eman da. Sari eta sariordainak parekatuak dira. Kirol espazioetan eskaeren araberako egokitzapenak egin dira bateragarritasun eta erantzunkidetasun arloan (umeen	Arloko langileen formaziorako plana Diru laguntzetan berdintasun irizpideak txertatzea Berdintasun irizpidea txertatzeko urte bakoitzean martxan jarriko diren neurriak zehaztu, eta jarraipena egin. Emakumeen eta gizonen kirola dibersifikatzeko ekimenak burutzea

aldagailuak gizonen aldageletan, haurtzaindegi zerbitzurako gela...)	Hizkuntzaren eta irudien erabilera integratzailea sustatu, eta jarraipena egin

HIRIGINTZA ETA INGURUMENA ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Proiektu handien memorietan berdintasun ikuspegia txertatzen da. Irisgarritasun neurriak kontuan hartzen dira proiektu guztietan Segurtasun irizpideak txertati dira, genero ikuspegiarekin.	Datuak sexuaren arabera jasotzeko baliabideak aztertu. Urteko plan operatiboak adostea, burutu beharreko ekintzak eta horretarako beharrezko liratekeen baliabideak zehaztuz. Emakumeen partehartzearen gaineko lehenengo diagnostiko bat burutu, eta beharrezko izanez gero, hobekuntza neurriak txertatzea. Kale izendegiaren gaineko azterketa, eta neurri zuzentzaileak proposatzea, hala badagokio

ENPLEGU ETA LAN ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Zuzendaritzatik formazioa jaso da eta lanketa ezberdinak egin dira Hizkuntzaren erabilera zaintzen da Lanbideko zentruan sentsibilizazio ikastaroak burutzen dira bi hiletik behin. Lanbideko zentruan berdintasun gaiak txertatzen dira zehar lerroko bezala. Sentsibilizazio maila altua.	Iraurgi Berritzen-ekin koordinazio maila obetzea, berdintasun planaren jarraipenari dagokionez. Zuzendaritzatik jaso den formazio eta Informazioa langileei helaraztea. Berdintasun ikuspegia proiektuetan txertatzen joatea. Genero inpaktuaren araberako ebaluazioak. Erantzunkidetasuna eta jazarpen sexistaren inguruko kanpainak habiatzea

HEZKUNTZA ETA GAZTERIA ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Sexu aldagaia jasotzen da Urteko plangintzan berdintasun arloko gaiak txertatzen dira Urteko egun jakinetarako ekintzak antolatu dira (M8, A25…), beldur barik dinamikarekin parte hartzen da, eta material ezberdinaren hedapena egiten da. Hezkidetza foroa	Urteko plan operatiboak burutzea, urte bakoitzerako helburuak identifikatuz. Erabiltzen diren materialak aztertu, eta berdintasun legearen 30. Artikulua betetzen ez dutenak deuseztea. Udal berdintasun arloarekin koordinazio maila indartzea

OSASUN ARLOA	
PUNTU SENDOAK	**PUNTU AHULAK**
Sexu informazio bulegoaren bidez emandako zerbitzua Eskolan ikastaroak eta lanketa desberdinak egin dira hezkidetza foroaren bidez. Udal mailako koordinazio protokoloa	Ez da osasun zerbitzuen azterketarik egin genero ikuspegitik.

5- AZKOITIKO II. BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Azkoitiko II. Berdintasun plana, Emakunderen VII. Berdintasun planean oinarriturik, 4 ardatz estrategikoak kontuak harturik.

Egitura aldaketa honen helburua, udalaren ekintzen globaltasuna islatu, eta estrategia eta helburu komunak ezartzea izan da. Zeharlerrokotasuna erdigunean ezarriz, Azkoitiko udal-politika bateratu bat planteatzen da berdintasun plan honetan.

Ardatz etrategikoak:

Aipatutako lan ildoen baitan, zenbait helburu planteatu dira, eta ekintza sorta bat helburu horiek aurrera eraman ahal izateko. Honakoak dira lan-ildo bakoitzaren barruan ezarri diren helburuak eta horiek gauzatzeko planteatu diren ekintzen proposamena:

5- AZKOITIKO II. BERDINTASUN PLANAREN ARDATZA,HELBURUAK ETA EKINTZAK

1.ARDATZA: GOBERNU ONERAKO NEURRIAK

Helburua: Genero ikuspegia Azkoitiko udal-administrazio orokorraren jardueran indartzea**.**

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	2021		
ZO.1	Udaleko Arduradun politiko eta teknikoentzako prestakuntza zehatzak antolatzea, genero ikuspegia txeratua izateko euren eguneroko jardunean.	X	X	X	X	160 ordu	Berdintasuna eta Idazkaritza
ZO.2.	Lanpostu publikoko deialdietan berdintasun ikuspegia txertatzea	X	X			160 ordu	Idazkaritza
K.2.	Liburutegi eta udaleko Berdintasun eta Kultura sailaren arteko koordinazioa indartzea	X	X	X		30 ordu	Kultura, liburutegiak
H.4.	Hirigintzatik burutzen diren proiektuetan eta parte hartze prozesuetan berdintasun ikuspegia bermatzea (plegu administratiboetan txertatzea)	X	X	X	X	120 ordu	Hirigintza

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	20121		
HG.1.	Gazte leku eta ludotekako pertsonalaren harrerako dokumentu bat eratzea, berdintasuna inguruko oinarrizko irizpide eta betebeharrak jasoz	X	X		X	60 ordu	Gazteria
HG.2.	Hezkidetza mahaian parte hartzea indartzea eta berdintasun arloarekiko harremana sendotzea	X	X	X	x	160 ordu	Berdintasuna
HG.3.	Ludotekan eta gaztelekuan erabiltzen diren materialak aztertu, eta berdintasun legearen 30.Artikulua[1] betetzen ez dutenak deuseztatu.	X	X	X	X	40 ordu	Gazteria

[1] 4/2005 legearen 30. Artikuluak ondorengoa dio: 1. Debeku da pertsonek, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testu-liburu edo irakaskuntzako material oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020		2018	2019
E.1.	Iraurgi Berritzen, enplegu zentroa eta udaleko berdintasun arloaren arteko harremana indartzea.	X	X	X	X	80 ordu	Iraurgi Berritzen
HG.2.	Udalak lanbideren bitartez burututako kontratazioetan berdintasun irizpideak txeratzea.	X	X	x	X	80 ordu	Berdintasuna eta Idazkaria
HG.3.	Herriko enpresei eta komertzioei berdintasun neurrien eta planen gaineko informazio periodikoa helaraztea, bai eta kanpaina ezberdinen gainekoa ere.	X	X	X	X	80 ordu	Iraurgi Berritzen
GZ.1.	Gizarte zerbitzuetako berdintasun plana aurrera eramatea, ebaluatzea eta hala badagokio, berritzea	X	X	X	X	320 ordu	Gizarte Zerbitzuak
GZ.2.	Gizarte zerbitzuetara gerturatzen diren erabiltzaileen	X	X	X	X	40 ordu	Gizarte

2. Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburuek eta irakaskuntzako beste material guztiek, inola ere, aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazi diren hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez estereotipatua bermatu behar dute.

	inguruko datuak aztertzea ekitaldi bakoitzaren amaieran, eta hala dagokionean, neurri zuzentzaileak proposatzea						Zerbitzuak

1.ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Helburua: Azkoitiarren artean balio-aldaketa sustatzea, berdintasunen aldekoak izan daitezen

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	2021		
K.1.	Ezarritako rol eta estereotipoak ezabatzea eta emakumeen lanak ikusgarritasunera bideratutako ekintzak sustatzea	X	X	X	X	80 ordu	Idazkaritza
K.3.	Emakumeen borrokarekin lotutako kanpainetan gaiarekin lotura duten liburuen gida bat lantzea liburutegietatik	X	X	X	X	80 ordu	Kultura eta liburutegiak
K.5.	Kirol segregazioaren deuseztapen eta emakumeen parte hartzera bideratutako sentsibilizazio kanpainak burutzea kirol	X	X	X	X	80 ordu	Kirola

	arlotik						
H.1.	Kale izendegiaren eta herriko elementu sinbolikoen azterketa burutzea.	X	X	X		60 ordu	Hirigintza

1. ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Helburua: Azkoitiarren artean genero kontzientzia bultzatzea eta emakumeen autonomiaren garapena sustatzea

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	2021		
HG. 4.	Neska gazteen ahalduntzera bideratutako ikastaroak eskaintzea, berdintasun arloarekin lankidetzan.	X	X	X	X	8000 euro (2000 euro urtero)	Berdintasuna eta Gazteria
HG. 5.	Mutilentzat maskulinitate erdu berrien gaineko ikastaroak antolatzea.	X	X	X	X	4.000 euro (1000 euro urtero)	Berdintasuna eta Gazteria
GZ. 4.	Bazterketa egoeran dauden emakumeekin ekintza ezberdinak burutzea, hauen ahalduntze pertsonal eta kolektibora bideratuta	X	X	X	X	8000 euro (2000 euro urtero)	Gizarte Zerbitzuak

3. ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

Helburua: Benetan bizitzeak merezi duen bizimodua ahalbidetuko duen antolaketa sozialaren eredua izatea Udala, eta zaintza-lanen duintasuna bermatzea.

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	2021		
ZO. 3.	Udaleko kontziliazio neurrien gaineko azterketa burutzea, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak ezartzea	X	X	X	X	80 ordu	Idazkaritza
H.2.	Prozesu parte hartzaileetan kontziliazio neurriak kontuan hartzea (zaintza lanetan dabiltzan pertsonei erraztasunak eman prozesu hauetan parte hartzeko)	X	X	X	x	80 ordu (Dagokien partidaren % 0,7)	Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak eta Kultura

4.ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARK GABEKO BIZITZAK

Helburua: Azkoitiko indarkeri matxista (zuzena eta zeharkakoa) aztertzea eta horren adierazpenei aurre egitea.

EKINTZA		URTEA				AURREKONTUA	ARDURADUNA
		2018	2019	2020	2021		
ZO.4.	Jazarpen sexuala eta sexuagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa martxan jartzea, udal barnean eman daitezkeen erasoen prebentziorako eta aurre egiteko	X	X	X	X	80 ordu	Idazkaritza
K.4.	Jaietan eman daitezkeen eraso sexisten prebentziorako kanpainak sendotzea	X	X	X	X	12.000 euro (3.000 euro urtero)	Berdintasuna eta Kultura
K.6.	Kirol instalazioen pleguetan sexu-jazarpen protokoloak izateko beharra txertatzea	X	x	X	X	80 ordu	Kirola

H.3.	Hiri debekatuaren mapa (Gune ilunak) burutzea eta jarraipena eraman		X	X	X	12000 euro	Berdintasuna eta Hirigintza
HG.6.	Berdintasun arloko kanpaina puntualak indartzea (Azaroak 25, Martxak 8, Beldur Barik, etab.)	X	X	X	X	12000 euro (3000 euro urtero)	Gazteria
HZIMA1.	Udalak onestu duen “Azkoitiko herrian indarkeria matxistari aurre egin behar dioten emakumeei eman beharreko arreta zerbitzuen koordinaziorako tokiko Protokoloa” martxan jarri.	X	X	X	X	160 ordu	Gizarte Zerbitzuak
HZGAE1	Indarkeria matxista bizi duten eta arreta jaso duten emakumeen egoeraren inguruko informazioa sistematizatu “Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko	x	x	x	x	120 ordu	Gizarte Zerbitzuak

	Erakundeen arteko II. Akordioaren" baitan eratu den Informazio-sistemen taldeak adostutako gutxieneko irismen-adierazleak kontutan harturik.						

Finantzazio aldetik, 4/2005 legearen arabera, bere 14. Artikuluan honako hau zehazten da: *Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan*. Hooren arabera, Azkoitiko Udalak 2018 urterako zuzendu duen aurrekontua honako hau da:

2018rako BERDINTASUN GAIETARAKO AURREKONTUA DA, GUZTIRA: 68.500€koa da.

Ekintzetarako, 12000; Hezkidetza programarako 29000; Asistentzi teknikoa eta berdintasun plana martxan jartzeko proiekturako 21500, dirulaguntzak 3000 eta beste 3000 eginkizun anitzak.

EKINTZAK ARLOKA, ADIERAZLEEKIN

ENPLEGUA

		Iraurgi berritzen, enplegu zentru eta udaleko berdintasun arloaren arteko harremana indartzea		
		EKINTZAK	**URTEA**	**ADIERAZLEAK**
E.1.	**E.1.1**	Urteko ekintzen planifikaziorako bilera bat burutzea urtearen hasieran	2018	Bilera egitea. Adostutako ekintza kopurua eta motak
	E.1.2.	Aurreko urteko ekintzen ebaluazio eta urteko ekintzen planifikazioa burutzeko bilera bat egitea	2019	Aurreikusitako ekintza kopurua/mota eta egindako kopurua/mota. Bilera kopurua.
	E.1.3.	Aurreko urteko ekintzen ebaluazio eta urteko ekintzen planifikazioa burutzeko bilera bat egitea	2020	Aurreikusitako ekintza kopurua/mota eta egindako kopurua/mota. Bilera kopurua.
	E.1.4.	Aurreko urteko ekintzen ebaluazio eta urteko ekintzen planifikazioa burutzeko bilera bat egitea. Ebaluazioa	2021	Aurreikusitako ekintza kopurua/mota eta egindako kopurua/mota. Bilera kopurua.

		Udalak lanbideren bitartez burututako kontratazioetan berdintasun irizpideak txertatzea		
		EKINTZAK	**URTEA**	**ADIERAZLEAK**
E.2.	**E.2.1.**	Lanbidetik sustatutako kontratazioetan berdintasun neurriak bermatzeko irizpideak adostu eta idatziz jasotzea	2018	Irizpideak adostu. Idatziz jaso. Irizpide kopuru/mota
	E.2.2.	Urtean burututako kontratazio gaineko datuak jaso	2019	Sexuz bereiztutako: lan mota, kontratazio irizpideak, izena eman dutenen kopurua, kontratazio kopuruak; kontratu motak (aldi baterako/finkoa;

				jardunaldi osoa edo partziala/sektoreak, etab).
	E.2.3.	Urtean burututako kontratazio gaineko datuak jaso	2020	Sexuz bereiztutako: lan mota, kontratazio irizpideak, izena eman dutenen kopurua, kontratazio kopuruak; kontratu motak (aldi baterako/finkoa; jardunaldi osoa edo partziala/sektoreak, etab).
	E.2.4.	Ebaluazioa eta irizpideetan neurri zuzentzaileak proposatzea	2021	Kontratazio datuen ebaluazio. Neurri zuzentzaileak sortu. Neurri zuzentzaile kopurua

		Herriko enpresei eta komertzioei berdintasun neurrien eta planen gaineko informazio periodikoa helaraztea, bai eta kanpaina ezberdinen gainekoa ere		
		EKINTZAK	**URTEA**	**ADIERAZLEAK**
E.3.	**E.3.1.**	Urtean zehar 3 hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2018	Hedapen kanpaina kopurua eta edukiak. Iritsi den pertsonen kopurua
	E.3.2.	Urtean zehar 3 hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2019	Hedapen kanpaina kopurua eta edukiak. Iritsi den pertsonen kopurua
	E.3.3.	Urtean zehar 3 hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2020	Hedapen kanpaina kopurua eta edukiak. Iritsi den pertsonen kopurua
	E.3.4.	Urtean zehar 3 hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2021	Hedapen kanpaina kopurua eta edukiak. Iritsi den pertsonen kopurua

		Enpresei sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpen protokoloen gaineko informazioa helaraztea		
		EKINTZAK	**URTEA**	**ADIERAZLEAK**
E.4.	**E.4.1.**	Urtean zehar 1-2- hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2018	Hedapen kanpaina kopurua eta iritsi den pertsonen kopurua
	E.4.2.	Urtean zehar 1-2- hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2019	Hedapen kanpaina kopurua eta iritsi den

				pertsonen kopurua
	E.4.3.	Urtean zehar 1-2- hedapen kanpaina burutzea herriko enpresekin	2020	Hedapen kanpaina kopurua eta iritsi den pertsonen kopurua
